

JON ARRETXE

# ARRUTIREN BANDA



erein

# ARRUTIREN BANDA

21

---

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2017ko azaroan*

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-247-6

L. G.: SS-1222/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

JON ARRETXE

# ARRUTIREN BANDA

erein

# I EREÑO



## 1

Hiru urte igaro dira atzean utzi dudan atetzar horretatik barrura sartu nindutenetik, polizia-autoan burdinak eskuturretan, baina jakin dut aldi honetako nazkamena eramaten eta, azkenik, askatasuna berreskuratzeko momentua heldu zait. Basauriko kartzela, neure herriko kartzela, halabeharrez, ondo ezagutzen nuen beste egonaldi laburrago batzuetatik, eta ez dut arazorik izan barruan moldatzeko. Iraupen luzeko presoek bazekiten zelako astapetro putakumea naizen eta ez dizkidate behin ere barrabilak ukitu, eta preso berriagoei hasiera-hasieratik erakutsi nien zelan funtzionatzen duen indartsuenaren legeak. Horretan oso lagungarriak izan zaizkit, jakina, nire ia bi metroak eta ehunetik gora kiloak, baita denen ustez daukadan

zoro kabroi aurpegia ere. Eta hori nahikoa ez bazen, kanpoko jende boteretsuaren laguntza ere izan dut, Arrutirena batik bat.

Nire estatusaz aprobetxatuz, negozio ona egin dut preso gixajoenei babesa eskainiz inork popatik eman ez ziezaien. Makina bat euro atera diet, nire bizio nagusiak, rona eta sudur-hauts bariatuak, asetzeko adina. Eta eskasia-sasoia gertatzen zenean, Arrutiri esan besterik ez neukan. Nire institutukide ohiak berehala helarazten zidan behar nuen edozein gauza. Izan ere, pertsona legala da Arruti, bizitzan berak baino zorte txarragoa izan dugun adiskide zaharrez gogoratzen dakiena. Azken baten, beragatik egon naiz giltzapeturik, berak antolatutako lapurreta-plana txarto atera zitzaigulako, baina errudun nagusia neu izan nintzen, gehiegi fidatzeagatik nire gorputzaz eta, aldi berean, furgona blindatuko segurata ziztrin itxurako haiek gutxiesteagatik.

Nahiz eta nik baino ez amaitu kaiolaturik, lau lagun geunden plan hartan sartuta: Arruti bera, Urru-txurtu, Delgado eta ni neu, Tomas Ereño. Laurak Basauriko institutuan elkarrekin ikasitakoak gara, elkarrekin suspenditu eta errepikatutakoak, zentroko ikasle eskasena historian, irakasleak desesperatu, lehenik, eta kikildu genituenak nagusiagotan. Giza-gaixo haiek merezi zuten, ba, euren soldata. Agian

aurreikusiko zuten zelan amaituko genuen Arrutik eta nik, batak Hego Uribeko droga-trafikatzailerik handienetakoa bilakaturik eta besteak... Zaila da definitzen ni zer bihurtu nintzen, arazoetan sartzeko joera daukan morroi bat eta, hala ere, gizartearen zirrikitu ilunenetatik mugituz bizirik irauteko moldatu dena.

Gure irakasle ohiek inoiz imajinatuko ez zutena, ostera, zera da, Urrutxurtu makarra liskarzialean, institutuko ikasketak irakasleak mehatxatuz ozta-ozta amaitu ondoren, herriko udaltzaingoan sartuko zela; are gutxiago Delgado demonioak egun baten, gurasoen heriotza tragikoaren ondoren, bat-batean argia ikusi, seminarioan sartu eta abade bihurtuko zela. Edonola ere, paturik eskasena gure bandako gainerako lagunek izan zuten: Kintana, Arbide, Benavides... Haien alkohol eta txokolatearekin nahikoa izan ez eta jako gainera bidaiekin zaletu ziren, gehiegi zaletu ere, harrik eta bueltako billetek gabeko bidaietan abiatu ziren arte.

Kartzelatik hirurehun metro eskasera dago gogomuta gazi-gozaok dakartzkidan institutua, hortxe daukat, begi bistan, eta horrantz jaisten den errepede bazterretan inor ez da ageri. Nire bizitzaren aldi berri hau pelikula on baten hasiera balitz, hor nonbait auto garesti bat izango nuke zain, Arrutik bidalitako limusina distiratsu bat, esaterako. Morroi dotore batek,

agian nire adiskideak berak, atea irekiko lizkidake onespenean batez, eta barruan bi puta eder egongo liriteke, xanpain botila irekita eta irribarre lizuna ezpainetan, azken hiru urteotan izan dudana sexu-lehortez kontsolatzen hasteko.

Sexurik eza gogorra izan da, bai, nire preso babestuen ezpain adurtien zupaldiak ezin baitira konparatu giltzapetu aurretik grina hori asetzen zidan emakume puskarekin. Horixe izan da, izan ere, itxialdian gehien sufriarazi didana: Yoselin maitearekiko banaketa. Haren txuloa jipoitu eta nire dominikarrarengana berriz hurbiltzeko gogoia kendu nionetik, bakean bizitua alokairuzko pisu apal baten, eta plan ederrak geneuzkan etorkizunerako. Furgona blindatuaren kontua ondo atera balitz, dirua hartu eta betiko desagertu ginen Kariben, Yoselinen gurasoek daukaten lur-sail baten etxetxo eraikitze helburuaz. Negozio xume bat ere muntatu eta, estalki horren irabaziekin eta, batez ere, lapurretako aurrezkiekin patxada ederrean bizitua ginen zahartu arte, estresik gabe, larrua jo eta jo, palmeren itzalpean rona edan eta edan... Pentsaturik geneuzkan negozioaren ezaugarriak: mangoetan espezializatutako postu bat izango zen, irabiatuak, esneaz nahastutako zukuak, fruta-mazedoniak eta halakoak eskainiko zituen. Lokalaren izena ere erabakita zegoen: *Mangos Yosereño*.



Baina dena pikutara joan zen. Arrutik, sikeran, zintzo jokatu zuen Yoselin gaixoari zegokionez ere. Nik eskatuta, eta kolegak salatuko ez nituela zin egin ondoren, nire amoranteari Errepublika Dominikarrera bidaia ordaindu zion, baita diru pixka bat eman ere, gurea izango den etxea eraikitzen hasi zedin.

Horretan ari da nire mulata gazte lerdena, hori helarazi dit mezuen bidez, nire zain dagoela beso zabalik, aske geratzeko falta zitzaizkidan egunak antsiatsu deskontatuz. Eta orain bai, orain ziegako gau luzeetan izandako ametsak errealitate bihurtzeaz daudela antzematen dut.

Luze barik hartuko dut lurralde epelagoetara eramango nauen hegazkina, baina kontu bat falta zait plana guztiz lotzeko: diru apur bat bildu behar dut, bidaia ordaintzeko ez ezik Kariben bolada luze batez ardurarik gabe bizi ahal izateko. Eta oraingoan ez da beharrezkoa izango Arrutiren eskuzabaltasunaz aprobetxatzea, beste bide bat topatu baitut nik bakarrik, kartzelan bertan, ziegakide suertatu zitzaidan morroiari esker. Nor eta beste basauritar bat ipini zidaten alboan, Gallego txikia, gaztetatik ezagutzen nuena, haren bandak eta nireak hitzorduak adosten zituztenetik elkar ostiatzeko kate, lintxako eta halako armekin. Pista galdua nion Gallegori, banekien kartzelan sartu-irten ugariak egiten zituela, eta ustekabea izan

zen Basaurikoan harekin topo egitea. Lehenengo harri duraren eta nazka-keinuen ostean, talka egitea baino elkarrekin ondo konpontzea hobetsi genuen, hain ondo non nire bizioak berarekin konpartitzea erabaki bainuen. Horri esker, pixkanaka konfiantza hartu eta, libre geratzeko egun gutxi falta zitzaizkionean, bere etorkizuneko planez mintzatzen hasi, mihia gehiegi askatu eta sekretu baliotsu bat kontatu zidan. Bera ere lapurreta baten erruz zegoen barruan, Basauriko bitxi-denda ezagunena husteagatik, Roaldorena. Poliziak harrapatu zuen, baina hori gertatu aurretik atzemandakoa, balio handiko harribitxi mordoa, antza, ostentzeko denbora izan zuen. Eta kartzelako zorioneko egun hartan, koka onaren euforiak bultzaturik, lerdo hark ezkutalekua aitortu zidan.

Ez zitzaidan gehiegi kostatu nire erdia pisatuko zuen morroi berritsu hura konbentzitzea bere etorkizuneko plana arbuiatu eta onena bere buruaz beste egitea zela. Gauez konbentzitu nuen, lo zegoen bitartean: bere alkandoraren mahukarekin ito eta ziegako barre-tatik zintzilikatu nuen. Goizean zaindariei oihuka hasi nintzen, deskubritu berri nuen tragediaren berri emateko. Ziur gaizki pentsatu zutela askok, baina Gallego ez zen batere estimatua eta inork ez zuen astirik galdu nire erruduntasuna frogatzeko ahaleginetan. Baten batek bota zuen agian tipoari ikara eman ziola bere

burua kalean libre berriro ikusteak edo halako txorradaren bat –ondorio hori daukan sindromeren bat ba omen dago–, eta horretan geratu zen kontua.

Orain irrikaz nago informazioa nire bandatik geratzen diren kolegekin partekatzeko, esker onekoa izan nahi dudalako, batetik, eta, gainera, euren laguntza ezinbestekoa izango zaidalako harribitxiak dauden lekutik ateratzeko. Delgado da, ziurrenik, lokalizatzeko errazena, imajinatzen dut non topa dezakedan eta harengana joko dut lehenik.

Kartzelako atetzarrari azken begiratu eman, garritatik so egiten didan txakurrari erdiko atzamarra erakutsi eta Basauriko erdialderantz abiatu naiz. Hurreratu ahala jendetza ikusi dut kaleetan, asko eta asko baserritar jantzita, uniforme desberdinekin, eta atoa konturatu naiz zergatiaz: jaietan gaude, sanfaustoetan. Sasoi aproposa iruditu zait askatasuna berreskuratzeke, gaua zurrakapotez mozkortuta ospatuko dut.

Fruta-denda baten aldamenetik igarotzean mango-kutxa bati erreparatu diot. Kartzelan sartu ninduteanean ezin zen imajinatu halako fruiturik topatzea eremu tropikaletatik hain urrun dagoen paraje honetan. Irribarrea atera zait.

## 2

–Etxerreko urmaelean, beraz.

–Horixe.

–Ziur zaude?

–Gallegok ez zeukan zertan gezurrik esan.

–Eta ez zeukan zertan kontatu bere sekretua. Zergatik egin zuen?

–Esan dizut, guztiz kolokatuta zegoen, pozarren, kalera ateratzeko gutxi falta zitzaion, bere planen berri ematen ari zen...

–Tira, Gallego ez da inoiz oso azkarra izan.

–Ez.

Nire bizkarraren atzealdera begiratu dut. Atso banaka batzuk baino ez dira ageri elizako bankuen lehengo ilaretan, nigandik urrun. Belaunetako mina sentitzen hasi naiz.

–Beharrezkoa da antzerki honekin jarraitzea?

–Hobe honela –erantzun dit Delgadok, aitorregiaren barrutik–, zenbat eta diskretuago jokatu, hobe.

–Arrutiren laguntza ondo etorriko zaigu –erantsi dut–. Berak jakingo du harribitxiak merkatuan zelan kolokatu.

–Noski, eta Urrutxurturi zerbait bururatuko zaio altxorra uretatik ateratzeko. Urmaela ez da zabalegia, ehun bat metro izango ditu bazter batetik bestera

puntu zabalenean, baina Gallegok zehaztasunen bat eman zizun ezkutalekuaz?

–Gauza handirik ez. Bera Zaratamorantz omen zihoan, harribitxiak basoan ezkutatzeko asmoz, baina polizia atzetik zeukala sumatu eta, Etxerretik igarotzean, urmaelaren ertzera hurbildu eta hantxe bota zituen, ondo itxitako bonboi-lata baten barruan. Ez dakit zelako sakonera daukan putzuak.

–Nik ere ez, baina erraz enteratuko gara. Udaletxean egongo da adituren bat ingurune kontuetan, uste dut urmaela eremu babestu edo halako zerbaitz izendatu nahi zutela, eta Urrutxurtuk arazorik gabe lortuko du informazioa.

–Laukotea berriro elkarlanean!

–Halaxe da.

Irribarre bat antzeman diot Delgadori saretaren beste aldetik.

–Zure falta sumatu dugu barruan egon zaren bitartean –esan dit–, eta ez gara zutaz ahaztu, batez ere isilik egoten jakin duzula kontuan hartuta. Lantxo bat edo beste egin dugu, gauza txikiak, baina irabazien laurdena gorde dugu zuretzat beti. Gehiegi izan ez arren, ondo etorriko zaizu, ezta?

–Ondo baino hobeto, poltsikoak hutsik dauzkat eta. Nahiago nuke zurrakapote txizaztuaz barik ron garestiaz ospatu nire askatasuna.

–Hala biz, eta postrea nire kontura. –Delgadok gurutzearen keinua egin eta papelina bat luzatu dit.

–Eskerrik asko, motel.

–Eta orain, apur baten itxaroten badidazu... –Nire atzealdera seinalatu du. Atso otoizlarietako bat aitor-tegitik hurbil kokatu da, abade jaunari bekatuen berri emateko bere txandaren zain-. Zuri dagokizuna gorderik dagoen tokira eramango zaitut.

–Ados, ez daukat beste zereginik.

Ariz auzoko elizatik irten eta horma baten kontra bota dut bizkarra. Eliza ezin zatarragoa da, agian itxura modernoa eman nahi izan zioten egin zutenean, baina ziztrinkeria hutsa atera zitzaien. Eta inguruko eraikinak ere, lauzpabost solairuko bloke grisak eta etxe orratz bana naka batzuk, bat datoz haren edertasunarekin. Horien denen artean, gainera, erabat lekuz kanpokoak dirudien antzinako dorretxe bat dago. Horrelakoa da Basauri, ibai bazterretik mendi aldera igotzen den aldapa luze bat, inolako planifikaziorik gabe eraikitako lantegi kutsatzaile, tailer zaratatsu nahiz bizileku motzez gainezka dagoena, eraikin zaharren bat tarteka-marteka isolaturik ageri dela. Ni jaio aurretik herritxoa omen zen, geure ama zenak zioenez, bera umetan behiak pasatzen ibiltzen zen orain asfaltoz estalita dagoen eremu honetan, baina gero industria mordoa etorri zen, etorrikin uholdea ere bai, *baby-booma* izendatzen duten hori

gertatu zen, eta etxeak presaka eta edonola eraiki ziztuzten urte gutxian, gaur egungo irudi kaotikoa osatu arte. Aldi horretan jaio ginenok ere molde horretakoak gara, edonola hazi eta hezitakoak, asko bidean erori ziren heroinaren eraginez, eta bizirik iraun genuenon artean inor gutxi atera zen dexentea.

Hainbat aldiz entzun behar izan dut Basauri markarraz beteriko zulo bat izateaz gain munduko herri itsusiena dela, baina niri bost axola jendearen iritziak, neure herria da eta kito. Gainera, gauza harrigarri eta paregabe bat dauka: jaietan, orain, debalde mozkortzeko aukera eskaintzen du, kuadrillek hartzen dituzten lonjetan zurrakapotea doan ematen baitizute. Gaur gauean edari gozoegi horrekin horditzeko asmoa neukan, gaztetxotan horrela harrapatzen nituen aitzur itzelak gogoan, baina Delgadok eman didan ezuste atseginari esker, beste egun baterako utziko dut lonjetako ibilbidea eta gaur toki sofistikatuagoetan mozkortuko naiz. Merezi dut, ze ostia!

Nire kolega ez da gehiegi luzatu eta hamar minuturen buruan agertu da, kaleko arropa arruntez jantzita.

–Bagoaz? –esan eta abiatu egin gara.

–Bekatu larriak zeuzkan atsoak?

–Oso, aste honetako egun baten ahaztu egin zaio oitutz egitea, eta atzo gaueko pelikula ikusiz katxonda ipini zen, aktore nagusia erdi biluzik agertu zenean.

–Infernura joango dela esan diozu?

–Ez naiz horren kabroia, otoitz batzuk eginda libra daitekeela esan diot.

–Zelan lortu duzu atso kristauok engainatzea? Askok ezagutzen zaituzte txikitatik, badakite zelako kabroia zinen, orain ere ez zara santu bat, eta gainera txarto lagunduta ikusten zaituzte sarri.

–Ez dago arazorik. Mamala horiek damuan, barkamenean, ardi galduen berreskuratzean eta horrelako gauzetan sinesten dute eta, adibidez, zure gisako alprojeekin ikusten nautenean, zuen arimak salbatzeko ahaleginetan nagoela uste dute. Nahikoa daukat euren aurrean antzerki pixka bat egitea halako gezurra irensteko.

Arizko dorretxe berriztatua inguratu dugu eta haren atzean dagoen ermitarantz hurbildu gara. Delgadok burdin hesiko sarraila ireki du lehenik, egurrezko atekoa gero eta, biak barrutik itxi ondoren, segitzeko keinua egin dit. Ilun samar dago eta itxi usaina da nagusi, hormak hutsik daude eta aldare txikiaren gaineko gurutze handia da apaingarri bakarra.

–Ezertarako erabiltzen da ermita? –galdetu diot.

–Ez, inor ez da inoiz sartzen, eta neuk daukat gilitza. Leku ezin hobea da gure gauzak ostentzeko.

Delgadok ermitaren aurrealdeko jarleku bat apur bat alden du eta lurreko harlauza luze bat seinalatu dit.



–Hau mugitzen lagundu beharko didazu.

–Zer da?

–Antzinako tonba zaharra, Arizko dorretzeko jauna lurperatu omen zuten hobi honetan. –Iribarre egin du–. Baina lasai, ez da haren arrastorik geratzen.

Bion artean lortu dugu harrizarra mugitzea.

–Atera poltsa hori, zuretzat da eta –esan dit Delgadok.

Lurrean belaunikatu eta barrurantz begira geratu naiz, nire begiak iluntasunera ohitzeko ahaleginez.

–Ez dut poltsarik ikusten –esan diot–. Hemen pala bat besterik ez dago, eta lurra pixka bat mugituta ageri da.

Erantzunik ezaren ondorioz burua jaso dudanean niganantz bizkor jaisten zen gurutzetzarra baino ez dut ikusi, eta ez dut erreakzionatzeko astirik izan. Lehenengo kolpeak leloturik utzi nau, hanketan flakia eman eta lurrean erdi etzanda geratu naiz, gora begira tonto aurpegiaz.

–*Ego te absolvo a peccatis tuis* –esan du Delgadok, eta jarraian beste kolpe bat jo dit buruan–, *in nomine Patris* –beste bat–, *et Filii* –beste bat–, *et Spiritus Sancti* –beste bat...

Ez nago seguru “Amen” entzun dudana ala ez. Bai antzeman ditudala, azken kolpeen ondoren, Delgadoren bufadak nire gorputzarrari bultzaka harlauzak

libre utzitako zulora botatzea lortu duen arte, eta odol epeleko erreka azaletik behera irristatzen, eta lurkolpeak begi-aho-belarriak pixkanaka estaltzen... Kordea galtzen ari naiz; zutitu, mugitu, oihukatu nahi dut, baina gorputzak ez dit erantzuten. Hau akabua da, agur harribitxiak, agur mangoak, agur Karibe, agur Yoselin.